



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

***Shostakóvich 14*, Calixto Bieitok zuzendutakoa, eta *Gesualdo WC Station*, Alex Gerediagak zuzendutakoa, dira Arriaga Antzokiaren 2025-2026 denboraldiko produkzio propio gailenak**

- Arriaga Antzokiaren *Shostakóvich 14* produkzioa Calixto Bieitok zuzendutako sinfonia liriko, ilun eta poetiko bat da, eta 2026ko ekainaren 19an eta 20an estreinatuko da denboraldiari amaiera emateko, maila handieneko bi ahots bakarlarirekin: Annette Dasch eta Leigh Melrose.
- Arriaga Antzokiak Alex Gerediagak zuzendutako *Gesualdo WC Station* ekoiztuko du, Carlo Gesualdo konpositorearen madrigalen antzezpena, Arrate Etxebarria, Txubio Fdez. de Jáuregui, Sandra Fdez. Aguirre eta Aitor Borobia aktoreekin eta Voces Suaves talde suitzarrarekin egindakoa.
- Arriaga Antzokiak beste ekoizpen propio bat berreskuratuko du, Lucía Astigarragak zuzendutako *Moto-Membra Jesu Nostri*: Eneko Sagardoyren testuak ditu -bera da ere antzezlea- eta Dietrich Buxtehudereren musika, Andoni Sierrak zuzendutako Conductus Ensemblek interpretatuko duena.
- Tanttaka Teatroaren eta Lucía Lacarra Ballet-en hurrengo proiektuen estreinaldiak (*Desobedientes 18/98* eta *A.I. Amalur Indarra*, hurrenez hurren) Arriaga Antzokiarekin batera egindako koprodukzioak dira; horrez gain, *Amour* berreskuratuko da, duela hamar urte Marie de Jongh-ekin egin eta estreinatu zen koprodukzioa.
- Arriaga Antzokiak, halaber, beste zortzi euskal produkzioarekin dihardu elkarlanean, eta horietako lauren estreinaldia eskainiko du: *El lenguaje de las flores / Loreen hizkuntza*, *Lovesong*, *Me aparezco porque me lo ha dicho mi psicóloga* eta *El despertar de la primavera*.
- Izen handiak: Anabel Alonso, Magüi Mira, Calixto Bieito, Joaquín Furriel, Pep Tosar, Juan Mayorga, Javier Gutiérrez, Antonio Molero, Pepe Viyuela, Mikel Losada, Miguel del Arco, Israel Elejalde, Imma Cuevas, Itziar Lazkano, Vicky Peña, Sergio Peris-Mencheta, Víctor Clavijo, Adriana Ozores, Miren Gaztañaga, Declan Donellan, Juan Echanove, Ramón Barea, José Sacristán, Oriol Pla, Ernesto Alterio, José María Pou, Carolina Yuste, Eneko Sagardoy, Natalia Menéndez, Aitana Sánchez-Gijón, etab.
- Lehen mailako nazioarteko dantza: Lucía Lacarra Ballet, Compañía María Pagés, Peeping Tom, Kukai Dantza, Ballet Nacional de Georgia, Hofesh Shechter Company, Compañía Nacho Duato, Eva Guerrero...
- *Mamma Mia!* eta *The Rocky Horror Show* musikalak; *Slava's Snowshow* zirkua; Coque Malla *La ópera de los tres centavos*-en, Rozalén *Chavela*-n; kontzertu ugari... programazioa oso zabala da.
- Arriaga Antzokiak berariazko programen aldeko apustua egiten jarraitzen du, hala nola ABAO Txiki Arriagan eta Lied Arriagan programekin.

Bilbo, 2025eko maiatzaren 19a.- Arriaga Antzokiko zuzendari artistiko **Calixto Bieitok** eta Arriaga Antzokiko Presidente eta Bilboko Udaleko Kultura zinegotzi **Gonzalo Olabarriak** Arriagak 2025-2026 denboraldian —2025eko abuztutik 2026ko ekainera bitartean, biak barne— eskainiko dituen ikuskizunen programazioaren berri eman dute gaur goizeko prentsaurrekoan. Berritasunak, dena den, uda amaitu ondoren iritsiko denarekin lotuta daude. Udan, arrakasta eztaba daezina duen musikal bat izango dugu: **Mamma Mia!**. Bestelako produkzio bat da, ez da aurretik ere Bilbon izan dena, eta abuztuaren 14tik irailaren 21era ikusi ahalko da, baita Aste Nagusian ere.

Programazio berriak tokiko eszenari bultzada bat ematen jarraitzen du baina, horrez gain, Espainiako Estatuan egiten den antzerkirik onena ekartzen du eta Arriaga Antzokiak nazioartean duen posizionamendu onari eusten dio.

Produkzio propioaren aldeko apustua

Datorren denboraldian ere, oinarrietako bat izango da Arriaga zigilua duten proiektu berriak oholtzaratzea. Hala, datorren urtean bi produkzio handi estreinatuko dira, beste bat berriz antzeztuko da, beste hiru ikuskizun koproduzituko dira eta zuzeneko elkarlana egingo da beste zortzi proiektutan.

2026ko apirilean, zehazki, hilaren 11n eta 12an, **Gesualdo WC Station** aurkeztuko da jendaurrean: kontzertuen, antzerkiaren eta zinemaren elementuak nahasten dituen ikuskizun bat. **Alex Gerediagak** eta bere talde artistikoak Carlo Gesualdo (1560-1613) konpositorearen madrigalak oholtzaratzeko eta antzezteko erronkari heldu diote, bere ildo estetiko eta narratiba zinatografikoagatik ezagut daitekeen proposamen baten bidez. **Arrate Etxebarria, Txubio Fdez. de Jáuregui, Sandra Fdez. Aguirre eta Aitor Borobia** aktoreak Gesualdoren errepertorioan adituak diren **Voces Suaves** (Basilea, Suitza) ahots talde bikainarekin batera arituko dira. Obraren planteamendua honako hau da: denboran ahaztuta geratu den tren geltoki bateko komun batean, ispiluak, kabinak, komun-ontziak, azulejuak, dar-dar egiten duten argiak ikusten ditugu; mendeak zeharkatzen dituen drama bat hasten da. Bost ahots *a cappella* durundi egiten ilunantzean, Carlo Gesualdoren lehen eta bigarren liburuetako madrigalak ahazmenetik ateratzen dituztela. Nota bakoitzak, etendako harmonia bakoitzak, konpositorearen tragedia ekartzen du gogora: jelskortasuna, traizioa, hilketa. Interesgarria izango da proiektuak zer nolako bilakabidea duen ikustea.

Aurreikusitako beste ekoizpen propioaren estreinaldia **Shostakóvich 14** izango da, **Calixto Bieitok** zuzendutakoa. Denboraldiari amaiera emango dio, 2026ko ekainaren 19an eta 20an, eta bi abeslari bikainek interpretatuko dute: **Annette Daschek eta Leigh Melrosek**. Duela gutxi ikusi genituen Bilbon, *Die ersten Menschen* eta *Orgian*, hurrenez hurren. Itxi gabe dago oraindik Shostakóvichen sol minorreko 14. Sinfonia, op. 135-ari buruzko ikuskizunean jardungo duen talde osoa. Obra bizia da, oso introspektiboa eta izaera ilunekoa, eta, besteak beste, Lorca, Apollinaire, Küchelbecker eta Rilke egileen hamaika poemetan oinarritzen da. Errusieraz konposatu bazuen ere, Shostakóvichek baimena eman zuen bertsiokantatu bat egiteko poesiaren hizkuntzetan: gaztelaniaz, frantsesez, errusieraz eta alemanez. Antzeztutako bertsiok honetan mundu distopiko bat aurkituko dugu: leku eder eta oparo bat, lehen bizitzaz beteta zegoena, baina suntsitua, urratua eta umiliatua izan dena. Bada, poesiaz, edertasunez eta, aldi berean, iluntasunez beteriko proiektu lirikoa da aurkeztuko dena.

Azkenik, ordena kronologikoari erreparatuz gero lehena izango bada ere, %100ean Arriaga den hirugarren ikuskizun bat izango dugu datorren denboraldiko programazioan, **Moto-Membra Jesu Nostriren** emanaldi bat programatu baita aurtengo irailaren 27rako. Hala, Arriaga Antzokiak azken urteotan ekoiztutako harribitxietako bat berreskuratuko da. 2022ko ikuskizun hori **Dietrich Buxtehudek**

1680an konposatutako *Membra Jesu Nostri* kontzertuaren antzezpen bat da. Zikloak Kristoren oinei, belaunei, eskuei, saihetsari, bularrari, bihotzari eta aurpegiari eskainitako zazpi kantata ditu, eta **Eneko Sagardoy** aktoreak idatzi eta antzezten duen testu zoragarri batekin solasean dihardute, non ustezko moto istripu batean desagertu den gizon baten eta geratzen den horren maitasunari buruzko istorio bat kontatzen zaigun. **Lucía Astigarraga** ikuskizunaren zuzendariak diseinatutako eszenaratze ederrak, eta Sagardoyk berak eta **Conductus Ensemblek**, **Andoni Sierraren** zuzendaritzapean, eskaini zuten emanaldi bikaina oso goraiatuak izan ziren kritikaren eta ikusleen aldetik. Orain, aukera bikaina izango dugu obra berriz ikusteko.

Aipatutako hiru ikuskizunez gain, Arriaga Antzokiak koproduttore gisa dihardu beste hiru ikuskizunetan; horien artean bi erabateko estreinaldi ditugu, bata antzerkikoa eta bestea dantzakoa. Antzerkiko estreinaldia **Desobedienteak 18/98 - Desobedientes 18/98** da eta **Tanttaka Teatroa** konpainiak eta **Arriaga Antzokiak** koproduzitu dute. **María Goiricelayak** idatzi duen obra bat da, eta muntaia **Fernando Bernuések** eta **Mireia Gabilondok** zuzentzen dute. Arriagan euskarazko estreinaldia izango dugu lehenik, urtarrilaren 9an, eta jarraian, gaztelaniazkoa, hilaren 10ean eta 11n.

Bi hilabete geroago, martxoaren 27tik 29ra, eta Arriaga Antzokia ikuskizunaren produktoreen artean dagoela, Fundación Baluarte Fundazioa, Kursaal Eszena eta Gasteizko Antzoki Sarearekin batera, **A.I. (Amalur Indarra)** estreinatuko da. **Lucía Lacarra Balletaren** bigarren produkzioa da, *Lost letters*-ek izandako arrakastaren ondoren datorrena; hura ere Arriagan estreinatu zen. *A.I. (Amalur Indarra)* izenburua Adimen Artifizialaren ingelesezko siglekin egindako hitz joko bat da, eta gizaki egiten gaituzten sentimenduak non geratzen diren eta sormenerako geratzen den lekua ezbaian jartzen ditu, **Lucia Lacarrak**, **Matthew Goldingek**, **Josué Ullatek** eta **Lucia Lacarra Balleteko** dantzariak interpretatutako dantza ikuskizun batean.

Azkenik, estreinaldiaren hamargarren urteurrena ospatuz, *Amour* eskainiko da berriz urtarrilaren 29an, **Marie de Jongh** konpainiaren eta **Arriaga Antzokiaren** artean egindako koprodukzioa. **Jokin Oregiren** dramaturgia eta zuzendaritzarekin, hitzik gabeko familia-antzerkiko ikuskizuna 2015eko abenduan estreinatu zen. Urte hauetan kritikaren eta ikusleen laudorioak jaso ditu, baita sari ugari ere: Haurrentzako edo Familientzako Ikuskizun Onenaren 2017ko MAX saria, Ikuskizun Onenaren 2016ko FETEN saria edo Euskal Ekoizpen Onenaren 2015eko ERCILLA saria, besteak beste.

Horrez gain, Arriaga Antzokiak euskal sortzaile edo taldeek egindako beste zortzi ikuskizunekin kolaboratu du, eta horietako lau bertan estreinatuko dira. Lehena azaroaren 20an izango da: **El lenguaje de las flores - Loreen hizkuntza**, **Unai Izquierdoren** dramaturgia eta **Getari Etxegarairen** zuzendaritza dituen antzeztan elebiduna, **La Mapatxa Teatroa** euskal antzerki konpainia berriaren aurreneko proiektua. Abenduaren 18an **Lovesongen** txanda izango da, **Abi Morgan** antzerkigile britainiarraren obrarena, zeina **Sandra Maturanak** moldatu eta zuzendu baitu, Pabellón 6ek egindako produkzioan. Bi hilabete geroago, otsailaren 18an, estreinatuko da **Me aparezco porque me lo ha dicho mi psicóloga**, **Pedro Rivero** eta **Gemma Martínezen** gidioa duen eta **Laura Ortegak** zuzenduko duen obra. Eta martxoaren 11n, **Pabellón 6eko Gazte Konpainiak**, **Adriana Laespadaren** zuzendaritzapean, lehen aldiz antzeztuko du **El despertar de la primavera** obra, Laespadak berak egindako Frank Wedekind-en *Despertar de la primavera* testuaren egokitzapena dena. Arriaga Antzokiaren elkarlana duten beste lau ikuskizunak ez dira hemen estreinatuko. Horietako hiru antzeztanak dira: **Nor naizen baneki**, **Harkaitz Cano** eta **Ximun Fuchsena** (azaroaren 5ean eta 6an); **Rikardo III eta ni**, **Eneritz Artetxeren** dramaturgiarekin eta **Igor de Quadraren** zuzendaritzarekin, urtarrilaren 15ean ikusiko duguna; eta **Kimu / La casa de todos**, Marie de Jongh konpainiaren azken lana, **Jokin Oregik** sortu eta zuzendutakoa, euskaraz urtarrilaren 31n eta gaztelaniaz

otsailaren 1ean ikusiko duguna. Horrez gain, Arriagak ere lagundu dio **Eva Guerreroren** *Hasta el último baile* dantza-obrari (azaroaren 13an Arriagan).

Arriaga gehiago

Musikaren atalaren barruan, Arriaga Antzokiak, Rubén Fdez. Aguirre maisuaren elkarlan bereziarekin, **Lied Arriagan** zikloarekin jarraituko du, ahotsa eta pianoa uztartzen dituzten sei errezitalekin: **Ilker Arkayürek eta Malcolm Martineau** (azaroak 4); **Ferrán Albrich eta Rubén Fdez. Aguirre** (urtarrilaren 27an); **Hera Hyesang Park eta Rubén Fdez. Aguirre** (martxoak 24); **Juan Laborería eta Carmen Santamaría** bere *Norteñas* errezitalarekin (apirilak 14); **Iris Candelaria eta Rubén Fdez. Aguirre** (maiatzak 19), eta **Marisa Martins eta Miquel Ortega** (ekainak 9).

Agertoki nagusira itzulita, ezin dugu ahaztu Arriaga Antzokiak OLBerekin ere elkarlanean diharduela **ABAO Txiki Arriagan** programan, eta aurrerago iragarriko diren lau ikuskizun eskainiko dituela.

Eusko labelarekin

Aurten ere, Arriaga Antzokia euskal kulturaren epizentroan egongo da. Arriagaren produkzio propioez eta elkarlanez gain, antzokiko eszenatokian Euskadin egindako beste proiektu batzuen antzezpenak izango ditugu, esaterako, 2026ko otsailaren 3an eta 4an **Kandida** estreinatuko da, **Patxo Telleriaren** euskarazko lan berria, **Tartean Teatroak** ekoizitakoa.

Bea Insa ere ikusi ahal izango dugu, urriaren 22an, **Billie** hezurmamitzen Billie Holidayri egiten dion omenaldian; baita **Oskara** dantza ikuskizuna ere, **Kukai Dantza eta Marcos Morauren** arteko lankidetzan egindakoa (urtarrilaren 22an); edo **Gogorapen hegalez, Olaeta Ballet Elkarte, Zirzira Ahots Taldea eta BilbaSinfonietaren** eskutik, otsailaren 8an; eta **Ramón Barea, Sobre los perjuicios del tabaco** antzezten, otsailaren 24an eta 25ean.

Halaber, gogoan izan behar dugu 2026ko martxoan **Loraldia Festivalaren** beste edizio bat egingo dela, eta Arriaga Antzokia egoitzetako bat izango dela, bertan eskainiko baitira laster iragarriko diren hainbat ikuskizun.

Antzerki anitz

Arriagaren *Shostakóvich 14* produkzioa zuzentzeaz gain, **Calixto Bieitoren** izena beste proiektu batean ikusi ahal izango dugu datorren denboraldian, antzerki proiektu batean, kasu honetan. **La verdadera historia de Ricardo III** Bieitok **William Shakespeare**ren obrari buruz egindako ikuskizun bat da, zeina Buenos Airesko Teatro San Martín - Complejo Teatral de Buenos Airesen produkzioari esker eramango baita oholtzara. Arriaga Antzokian lau emanaldi izango ditugu urriaren 16tik 19ra, **Joaquín Furriel** aktore argentinar ezaguna buru duen antzeztalde baten eskutik.

Ikuskizun horretaz eta aipatutako euskal antzerki ikuskizunez gain, Arriaga Antzokiak, aurten ere, Estatu mailan sortzen ari den onena eskainiko dio Bilbori. Bi estreinaldi absolutu dira horren erakusgarri. Lehenengoa, urria hasi berritan, Simone de Beauvoirren (urriak 1 eta 2) **La mujer rota** antzezlanarena: Heidi Stenhardtek egokitu eta zuzendu du eta **Anabel Alonso** du protagonista. Beste estreinaldia 2026ko maiatzean izango da, 15etik 17ra, eta **Fronteras** obrarena izango da. Muntaketa **Henry Naylor** egile britainiarraren testu batetik abiatzen da, eta **Andrés Limaren** zuzendaritzapean oholtzaratuko dute **Eneko Sagardoyk** eta **Carolina Yustek**.

Bi estreinaldi horiez gain, programatutako obren eta antzezle handien zerrenda benetan zabala da. Urriaren 3tik 5era **La barraca** iritsiko da, **Magüi Miraren** zuzendaritzarekin. Urriaren 23an **Pep Tosar** itzuliko da, **El fingidor** zuzendu eta

interpretatzeko. **Lluís Homar** protagonista izango da *Memorias de Adrianon* urriaren 25ean, eta urriaren 31tik azaroaren 2ra **Juan Mayorgaren** *Los yugoslavos* izango dugu, **Javier Gutiérrez eta Luis Bermejorekin**. Azaroaren 14an eta 15etan, **Antonio Molero eta Pepe Viyuela** buru dituen antzeztaldeak **Borja Ortiz de Gondraren** *El barbero de Picasso* antzeztuko du. Azaroaren 27an **Carlos Troyanoren** *El jardín de las posibilidades* antzeztalaren emanaldi bat egongo da eta abenduaren 4an *La patética* ikusiko dugu, **Miguel del Arcok** idatzi eta zuzendutakoa, **Israel Elejalde, Jesús Noguero** edo **Inma Cuevasen** eskutik, besteak beste. Abenduaren 19an eta 20an, *Todos pájaros* izango dugu, *Incendios* zuzendu zuen **Wadji Mouawadena**. **Mario Gasek** zuzentzen duen obra hori aurtengo azken antzerki proposamena izango da, eta **Vicky Peña** eta **Candela Serrat** ditu antzeztaldean, besteak beste.

2026rako jauziak, antzerkiari dagokionez, **Sergio Peris-Mencheta** ekarriko du berriz ere zuzendari gisa, oraingoan *Blaubeeren* antzeztalarekin: **Moises Kaufman eta Amanda Gronichen** testu bat da, 2024ko antzerkiaren Pulitzer sariko finalista izan zena eta urtarrilaren 16an, besteak beste, **Clara Alvaradok** edo **Victor Clavijok** oholtzaratuko dutena. Hilaren 23an eta 24an, **Adriana Ozores eta Jorge Calvo** barne hartzen dituen antzeztaldeak *Filosofía mundana* antzeztuko du, **Luis Luquek** moldatu eta zuzentzen duen **Javier Gomáren** testu bat. Otsailean, hilaren 6an eta 7an, **Shakespeare** bat iritsiko da, *Los dos hidalgos de Verona*, **Declan Donellan** (zuzendari lanetan ere arituko da) eta **Nick Ormeroden** egokitzapenarekin, **Goizalde Núñez** eta **Jorge Basanta** antzeztalde handiko kide direla. Otsailaren 20tik 22ra **Juan Echanove eta Joaquín Climent** izango ditugu antzezle **Ignacio García Mayren** *Esencia* lanean, eta otsailaren 27tik martxoaren 1era **José Sacristán** protagonista izango da *El hijo de la cómica* antzeztalanean; berak egokitu eta zuzentzen du Fernando Fernán-Gómezi omenaldia egiten dion obra hori. Hurrengo astean, hilaren 7an eta 8an, *Sensación térmica* ikusi ahal izango dugu, **Adolfo Fernándezek** egindako **Mayte Lópezen** eleberriaren egokitzapena. Martxoan ere, hilaren 20an eta 21ean, **Oriol Pla** iritsiko da, oso kritika onak izan dituen *Travy* obrarekin.

Apirilak (17tik 19ra) **Ernesto Alterio, Marta Belenguer** eta **Mélida Molina** ekarriko ditu Arriagara, **Harold Pinterren** *Viejos tiempos* antzezteko, **Pablo Remónek** egindako bertsoarekin eta **Beatriz Argüelloren** zuzendaritzarekin. Ondoren, **José María Pou** iritsiko da, Mark Rosenblattren *Gigante* antzezteko, apirilaren 30etik maiatzaren 3ra arte. Jarraian, maiatzaren 7an, *Un monstruo viene a verme* ikusiko dugu, **LaJoven** konpainiak Minbiziaren aurkako Espainiako Elkartearekin batera egindako antzerki proiektua, zeinak **Siobham Dowden** jatorrizko ideia batean oinarritutako **Patrick Nessen** eleberria eramaten baitu oholtzara. Hilabetea amaitu aurretik, maiatzaren 28tik 30era, **Aitana Sánchez-Gijón** Arriagara itzuliko da *Malquerida* antzeztalaneke protagonista gisa; Jacinto Benaventeren testuaren egokitzapen bat da, **Natalia Menéndezek eta Juan Carlos Rubiok** egindakoa. Menéndez bera da zuzendaria, eta berriz izango dugu gure artean, izan ere, aurtien Arriaga Antzokiaren *Kristalezko zooa* produkzio propioa zuzendu baitu.

Dantza programa liluragarria

Aurtien ere, Arriaga Antzokiak dantza programa interesgarri eta askotariko bat prestatu du, elkarren artean oso desberdinak diren ikuskizunekin, eta dantzaren eta gorputz adierazpenaren munduari ikuspegi oso desberdinetatik heltzen dioten artistekin.

Aurreko ataletan jada aipatu ditugu Eva Guerrero, Kukai Dantza, Olaeta Ballet Elkarte eta Lucía Lacarra Balleten ikuskizunak. Baina gehiago daude. Abenduan puntako emanaldi bi izango ditugu. Hilaren 6an eta 7an, Arriaga Antzokiak beste behin ere izango du agertokian **María Pagés** handia, *Paraíso de los negros* emanaldiarekin. Koreografia flamenko bat da, hainbat bizigarri dituena: Federico García Lorcaren *Poeta en Nueva York* zeharkatzen duten askatasun eta autoritate printzipioen arteko tentsioa,

Carl Van Vechtenen izen bereko obran azaltzen diren aurkakoen esentzia, Leopold Sedar Senghoren belztasunaren filosofia telurikoa eta Nina Simoneren desira beltzaren aldarrikapena. Edertasun handiko dantza ikuskizun bat da, zuzeneko musikarekin. Handik astebetara, hilaren 12an eta 13an, proposamen oso interesgarri bat ikusi ahal izango dugu, **Dyptich: The missing door and The lost room** izeneko programa bikoitza, Belgikako **Peeping Tom** konpainia prestigiotsuaren eskutik. Konpainiak berrasmatu egin ditu diptiko horren bi pieza laburrak, duela hamarkada bat Gabriela Carrizok eta Franck Cartierrek Nederlans Dans Theatre konpainiarekin batera sortutakoak. Dantzariek gozarazi egingo dituzte ikusleak, mugimendu espasmodikoekin eta bakartsaio bertutetsuekin, baita umore ukitu sotilekin ere.

Jakin-mina piztuko du ere **Georgiako Ballet Nazionalaren** bisitak. Kaukasoko sustraiei eskainitako ikuskizunean 20 abeslarik eta 20 dantzarik dantza tradizionalen eta kantu polifonikoen aukeraketa bat interpretatuko dute, beren herrialdeko eskualdeen aberastasunaren eta aniztasunaren erakusgarri. Emanaldia otsailaren 19an izango da.

Ziur asko, harrera ona izango du apirilean (hilaren 24 eta 25ean) **Hofesh Shechter Company** konpainiak Arriagara egingo duen itzulerak, aurreko bisitetan izan duten harrera ona ikusita. Ikuskizun berriak, **Theatre of dreams**, fantasiaren eta subkontzientearen munduan murgilduko du publikoa, errealismoa eta poesia uztartzen dituen eta zuzeneko musika duen proposamen baten bidez.

Azkenik, maiatzean, **Compañía Nacho Duatoren** txanda izango da, zeinak hilaren 22an eta 23an egingo baititu emanaldiak. Zehazteke dago oraindik bere egitarau osoa, baina emanaldiko piezen artean **Cantus** ikusi ahal izango dugu, Nacho Duatoren obra berria: bere gazte konpainiarentzat sortu du eta gatazka baten izugarrikeriez hitz egiten digu, Karl Jenkinsen musika hunkigarriaren laguntzarekin.

Kontzertuak eta lirika

Musikak beti du lehentasunezko lekua Arriaga Antzokiaren programazioan. Denboraldiko lehen kontzertua urriaren 26an izango da. **Gontzal Mendibil** Arriagara dator urteurren berezi bat dela eta: bere ibilbidearen 50 urteurrena. Aukera ederra izango da Arratiako abeslariak bere ibilbidean zehar sortutako abestiak entzuteko.

Azaroan, **Bilboko Udal Musika Bandaren** (hilaren 16an), **Santiago Auserón y la Academia Nocturnaren** kontzertuak (hilaren 23an) eta **Mikel Erentxunen DD40** bira (hilaren 30ean) izango ditugu. Azken horretan, abeslari donostiarrak, bere bandarekin batera, Duncan Dhuren abestien errepertorio osoa joko du, 2025ean talde mitikoaren lehen albuma argitaratu zenetik 40 urte bete direla aprobetxatuta.

Azaroaren 22an, osagai erakargarri ugari dituen nazioarteko proposamen bat dago programatuta: **The Fairy Queen**, Les Arts Florissants-eko abeslari gazteentzako akademia den **Le Jardin des Voixek** interpretatuko duen obra enblematiko baten berrikuspen gazte eta liluragarri bat. William Christie eta Paul Agnew-ren zuzendaritzapean, akademia bienalak ongietorria egiten die euren ibilbidean hasiberriak diren abeslari klasiko gazteei. **The Fairy Queen** proiektua gorai patua izan da nazioartean, jaialdi ezagunenetatik igaro ondoren: Lucerna, Bremen, Tanglewood concert series... BBC Promsen ere gozatu ahal izan dute harekin, baita prestigio handiko tenpluetan ere, hala nola Milango Teatro alla Scalan eta Parisko Philharmonien.

Abenduaren 3an **Gari** izango dugu Arriagako eszenatokian, bere bakarkako ibilbidearen 30. urteurrena ospatzeko: kontzertu oso berezi bat eskainiko du, entzule kopuru txiki batentzat eta eszenatokian bertan. 10ean **Bilboko Koral Elkarte**ko **Euskeria Abesbatzak** Gabriel Aresti omenduko du **Abendua Arestiz** kontzertuarekin;

eta gospela bi bider sartuko da Gabon aurreko aldian **The South Carolina Gospel Choir** (abenduarien 16an) eta **Chicago Mass Choir** (22an) abesbatzekin.

2026 hasi berri dela, urtarrilaren 6an, **Neomak** taldeko kideak iritsiko dira, orain laukote direla, udazkenean kaleratuko duten bigarren diskoa zuzenean aurkezteko eta, Urtarrilaren 11n, txikiek eta helduek **Gora Musika!** ikuskizunaz gozatuko dute. Oiane Yarzak eta Urko Oscozek, Ene Kantak-en hainbat urte eman ondoren, egindako proiektu berri honetan, gainera, Korrontzik, Bixente Martinezek, hainbat dantzarik eta erraldoik parte hartzen dute.

Urtarrilaren 17an, **Arriaga y el eco de su tiempo** kontzertuaren bitartez, Juan Crisóstomo de Arriaga konpositore bilbotarra ekarriko dugu gogora, gure antzokiari izena ematen diona, haren heriotzaren 200. urteurrenaren ospakizunean, hori baita, hain zuzen, 2026ko urtarrilaren 17an ohoratzen dena. **Josexu Obregón**en musika zuzendaritzapean, **La Ritirata** orkestrak eta zenbait bakarlarik Arriagaren ahots-musika erlijiosoko konposizioetako batzuk interpretatuko dituzte, hain ezagunak ez direnak, Luigi Boccherini konpositorearen beste obra batzuekin batera.

Urtarrilaren 18an **Bereterretx** ikuskizuna izango dugu. **Pier Paul Berzaitzek** bultzatu du eta ziurrenik Euskal Herrian dagoen Erdi Aroko kantore ezagunena du oinarri: *Bereterretxen khantoria*. Euskaraz egingo den emanaldi ederra da, une batzuetan pastoral batetik hurbil, barne hartzen dituen kantak eta dantza saioak direla eta.

Otsailaren 26an, **Euskal Herriko Orkestra Barrokoak**, **Enrike Solinísek** bultzatuta sortu berri den taldeak, **Masquerade** izeneko kontzertu bat emango du, Europa barrokoan nagusi izan zen forma musikalaria, hau da, Maskaradari eskainitakoa. Martxoaren 5ean **Borja Niso Dream Experience** ikuskizun murgiltzailea bizitzeko aukera izango dugu, Borja Niso pianista autodidaktaren eskutik, eta apirilaren 16an, azken urteetan erreferentzia bat izan den pop talde bat izango dugu: **Maldita Nerea**. Azkenik, ekitaldi berezi bat izango dugu apirilaren 29an, Bilboko funtsezko hiru erakunderen sorreraren 140. urteurrena ospatzeko: Bilboko Koral Elkarteak, Merkataritza Ganbera eta Deustuko Unibertsitateaz ari gara. Abesbatzak emanaldi bat eskainiko du Enrique Azurzaren zuzendaritzapean eta Eindhoveneko Philips Symfonie Orkest-ekin batera, Txemi Etxebarria maisuaren gidaritzapean.

Foyerra

Arriagako foyerrean ere kontzertuak izango ditugu denboraldian zehar, Lied Arriagan zikloan programatutakoez gain. Aurten ere, euskaraz egindako errezital batzuk ikusi ahal izango ditugu, zehazki, musika poesiarekin edo literaturarekin uztartzen duten lau proposamen. Azaroaren 18an **Xabi Solanok eta Jon Garmendiak** *Bidasoatik harago* kontzertua eskainiko dute. Urtarrilaren 20an, **Jon Basagurenen** txanda izango da, zeinak gitarra eta ahots formatuan, bere talde Izaki Gardenak-ek argitaratutako azken lanaren bertsio akustiko bat, kantu zaharragoak eta bertsioak eskainiko baititu. Apirilaren 21ean, **Sara Zozayak** bere bakarkako diskoa aurkeztuko du, *Nara*, zeina abesti bikainez josita baitago. Eta maiatzaren 26an **Xabier Amurizak eta Agus Barandiaranek** musika eta koplak uztartuko dituzte *85 koplak* izeneko hitzaldi musikatuan. 2020an ere izan genuen Arriagako foyerrean bi sortzaileek eskainitako beste errezital bat eta oso zapore ona utzi zuen.

Harribitxi musikalak eta zirkua

Dagoeneko iragarrita dagoen *Mamma Mia!* musikalak gain, beste musikak handi bat izango dugu: **The Rocky Horror Show**. Urriaren 8tik 12ra iritsiko da Londresko ekoizpen berarekin, eta jatorrizko bertsioan eskainiko da, azpitoluekin. Christopher Luscomberen zuzendaritzapean West End-ean arrakasta handiz antzeztu den ekoizpen berbera da. 1973ko ekainean estreinatu zen Royal Court Theatre antzokian;

harrezkero, *The Rocky Horror Show* etenik gabe ikusgai denbora luzeenaz egon den musikal garaikide bihurtu da. Mende erdi honetan zehar egin diren emanaldietan, 35 milioi pertsonak baino gehiagok ikusi dute musikala mundu osoan zehar, guztira, 30 herrialde baino gehiagotan egon da eta 20 hizkuntza baino gehiagotara itzuli dute.

Egun batzuk geroago, antzerki musikaleko beste ikuskizun bat ikusi ahal izango dugu, zeinaren izenburuan artista mitiko bati erreferentzia egiten diona: **Chavela**. Produzizio honek hainbat artista biltzen ditu, hala nola **Luisa Gavasa** eta **Rozalén**, eta haren zaleek gozatu egingo dute bere ohiko proposamenaz bestelako tesitura batean ikusita. Urriaren 28, 29 eta 30ean izango da ikusgai **Carolina Román**ek zuzendutako eta **Alejandro Pelayo**ren zuzeneko musika duen ikuskizuna.

Ikusmina sortuko duen beste emanaldietako bat **Coque Mallarena** izango da, zeinak **La opera de los tres centavos**eko Macheath-ena egingo baitu, beste aktore batzuk eta zuzeneko musika lagun dituela. Mallak, berezko duen ezinegon horrekin, beste jauzi bat egin du bere ibilbidean eta protagonista izango da **Kurt Weill-Bertolt Brecht** duoaren obra handietako batean, zeinarekin izugarritzko kritika egin baitzioten kapitalismoari, XX. mendeko 20ko hamarkada nahasiaren amaieran Berlingen estreinatu zenean. Arriaga Antzokian antzerki musikaleko ikuskizun horren lau emanaldi izango ditugu: otsailaren 12an, 13an, 14an eta 15ean.

Azkenik, Arriaga Antzokiak Gabonetarako egin duen apustua **Slava's Snowshow** da, zirku ikuskizun handi, poetiko eta denboragabea, mota guztietako ikusleen irudimena liluratu eta sustatu duena. Cirque du Soleil familiako Slava Polunin-ek, **Alegría** emanaldiaren sorkuntzan kolaboratzaile izan zenak eta, ziurrenik, nazioartean prestigio handiena duen jarduneko klownak, bere ikuskizunik ezagunena eskainiko du berriro: **Slava's Snowshow**. Sortzaileak berak ere ezin zuen iragarri 1993an, sortu zuenean, ikuskizun horrek munduan izango zituen ibilbide eta oihartzun handia: 12.000 emanaldi baino gehiago eskaini ditu eta 10 milioi ikusletik gora utzi ditu hunkituta eta txundituta sortutako lanaren aparteko edertasun bisualarekin, eta Ingalaterrako «Laurence Olivier Award» eta Errusiako «Triumph Award» sariak irabazi ditu. Ikuskizuna genero bat da bere horretan, eta lehen egunean bezain espontaneo eta magikoa izaten jarraitzen du. Abenduaren 26tik 30era berretsi ahal izango dugu hala dela.

Sarrerak salgai ekainaren 19an

2025-2026 denboraldiko ikuskizun guztietarako sarrerak ekainaren 19tik aurrera egongo dira eskuragai, ohiko salmentarako kanaletan: www.teatroarriaga.eus webgunean edo antzokiko txarteldegietan, alde zuzeneko salmenta ordutegian. Salbuespena *Mamma Mia!* musikala da, sarrerak jada salgai baitaude.

Hemen kontsulta ditzakezu datozen ikuskizunak, ordena kronologikoan:
<https://www.teatroarriaga.eus/proximos-espectaculos/>

DoSEL proiektuak darrai

Programaziotik harago, gogoratu beharra dago Arriaga Antzokiak datorren denboraldian lanean jarraituko duela DoSEL (*Drama of Smaller European Languages*) proiektu europarrean. Halaber, European Theatre Convention - ETC delako entitateko antzoki gisa hainbat ekimenetan ere hartuko du parte.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus